

MEMORIA ETA JUSTIZIA AHAZTE OFIZIALA GAINDITZEKO

1936ko altxamendu militarren ondoren ezarri zen erregimen faxistak Hego Euskal Herrian errepresio handia eragin zuen. Beste erakunde askok bezala, ELAk larrutik ordaindu zuen demokraziaren aldeko borroka: afiliatu asko eta asko espetxeratu egin zituzten, kontzentrazio-eremuetan sartu, exekutatu edota halabeharrez erbesteratu ziren; sindikatuak berak “era guztietako eskubideak eta ondasunak guztiz galdu” zituen.

Bereziki eragina izan zuten Hego Euskal Herrian emandako errepresio militarra, politikoa, soziala eta kulturek, nahiz eta ñabardura bereziak eta osatze maila ezberdinak izan, lurralde bakoitzaren arabera. Nafarroan gerra-fronterik ez zen izan, baina errepresio berezia pairatu zen: mendeku hutsez 3.400dik gora lagun hil egin zituzten. Pertsona hauen delitu bakarra Nafarroa justuago, solidarioago, euskaldunago baten alde lan egitea edota lur komunalak defenditzea besterik ez zen, eta kupidagabe garbitu zituzten. Gure jendearen artean izua hedatu zen, eta gainera urte askotan hiltzaileen eta egintza horien onura izan zutenen harrokeria jasan behar izan zuten. Urte horietan, gainera, oraindik hein handian hor dirauten botere- eta eragin-egitura batzuk ezarri ziren, oraindik ere funts demokratikorik nahiz gardentasunik gabekoak.

Biktimen samina, eta areago, biktimak bazirenik ere, ez zen inoiz aitortu; kaltetunak eta senideak ezer gertatu ez bailitzan bizitzera makurrarazi zituzten, dolurik izateko aukerarik gabe, hilobi eta bide ertzetan lurperatuta zeuden hildakoen alde malkorik isurtzeko modurik gabe. Halere, haietako askok duintasunari heldu zioten, diktadorearen heriotzarekin demokrazia eta memoria berreskuratuko zirelakoan.

Alabaina, sufritutakoaren amnesia izan zen Espainiako trantsizio politikoa deitutako prozesu haren oinarrietako bat –lurralde-zatiketa eta sistema politiko monarkikoa ziren beste ezaugarri batzuk–; galtzaileek ahaztuko zutelako baldintzapean eman zitzaion bidea nazioarteko mailan homologatua izango zen erregimen ‘demokratiko’ hari.

ELAk uste du memoria berreskuratu eta osatzea justiziazko eginbeharra dela. Hurrengo belaunaldiei hain gertakari bortitzen berri eman behar zaie, eta hildako zein jazarritakoen senideei dolua eta egia zor zaie. Baina gainera, sindikatuaren iritziz oroitzea bere helburu duen aldaketa politikoaren baldintza ere bada; izan ere, indarrean den sistema politikoaren mamia memoria aintzat hartzen duen edo ez baitago. Memoria berreskuratzeko borrokan egin daitezkeen urratsak aldaketa politiko hori bideratzeko lagungarri izango dira.

Hori guztia dela eta, kongresu konfederal honek botere publikoei exijitzen die onar ditzatela memoria berreskuratzeko lanean diharduten taldeek Memoria Historikoaren Legean planteatu dituzten aldaketak. Soilik Errepublikaren aurka matxinatutako militarren errepresioa eta erregimen frankista –Elizaren botere-egiturak babesturik- jasan zuten biktimek behar dute ordain morala eta aitortza juridiko zein politikoa. Gainera, lege batek diktadura gaitzetsi behar du eta erabili zituen errepresio-organoen zilegitasuna ukatu, Ardura Politikoen Auzitegitik hasi eta Ordena Publikoaren Auzitegiraino, baita hauek emandako sententziak ere.

1. EBAZPENA (jarr.)

MEMORIA ETA JUSTIZIA AHAZTE OFIZIALA GAINDITZEKO

Kongresu honek Iruña eta Gasteizko gobernuei galdegiten die ken ditzatela gure herri eta auzoetan erregimen frankistaren ikur guztiak, diktadura jasan zutenentzat iraingarriak baitira. Demokrazia bat ezin da indartu erregimen kriminal bat gorai patzen duten sinboloak irautearen injustiziarekin.

Halaber, errepresaliak jasan eta klandestinitatera bortxatu zituzten erakunde guztien izen ona eta ohorea berreskura eta aitortu daitezela exigitzen dugu, baita altxamenduaren ostean konfiskatu ziren ondasunen erabateko konpentsazioa ere.

Era berean, erakunde publiko nahiz pribatuek, eliza katolikoa barne, gai az duten informazioa eskuratzeko erraztasunak eman ditzaten esijitzea nahitaezkoa da, hartara gertaturikoa osotasunez jakin eta memoria berreskuratzea ahalbidetuz.

Ebazpen honekin eskola, soro, etxe eta lantokietan gure herriarentzako askatasun eta justiziazko etorkizun baten alde lan egin zuten haien lekukoa hartzen du berriro ELAk.

ATAL SINDIKALA, NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ANTOLATZEKO ERRONKA

Indar-korrelazioa

Hamalau urtez etengabe iraun duen hazkunde ekonomikoak lehen baino ahulago utzi du langileria. Hori gertatzeko arrazoiak bi izan dira nagusiki: aberastasunaren banaketa bidegabea —kapitala inoiz baino gehiago metatu da esku gutxitan—, eta lan-munduaren desarautzea —diskriminazio eta prekaritatearen bidez—. Indar-korrelazioan langileen pisua behera joan da, zeren administrazio publikoek bere egin baitute kredo neoliberalak, eta horren ondorioz haien baliabide birbanatzaileak ahuldu dira.

Hazkunde txikiagoko egoera ekonomiko batean, patronalak eta gobernuek beste gurutzada bat antolatu dute soldaten aurka, eta lan-erreforma gehiago ere erreklamatu. ELAren ustez egundoko bidegabekeria da atzeraldiaren kalteak langileei egozteak. Egoeraren arrazoi nagusiak —haiek berek aitortu dutenez— bestelakoak izan baitira: etekinak (gehiegizkoak eta azkarregiak), kapital-merkatuen araugabetzea, eta enpresaburuen arduragabekeria.

Negoiazio kolektiboaren nagusitasuna

Horiek horrela, negoziazio kolektiboa, mugimendu sindikalaren berebiziko tresnarik egokiena izateaz gain, lehenagotik ere bazen horrelakoa, langileek zuzenean eta benetan eragiteko esparrua da, errenta-banaketa aldatze aldera eta lan-baldintzak hobetze aldera. Horregatik, behar-beharrezkoa eta premiazkoa da negoziazio kolektiboa arretaz aztertzea, eta ondorioz proposamenak egin, antolamendua hobetu, eta ekintza sindikala areagotu.

Eta negoziazio kolektiboa, enpresaz gorakoa ere bai, bultzatzeko motorra atal sindikala da, erabat sinestuta gaude. Atal sindikalik gabe ez dago lan-baldintzak hobetzeko moduko ekintza sindikalik.

Ezinbesteko bitartekoak

Negoiazio kolektiboa bizkortu nahi badugu, atal sindikaletan norberaren ardurak eta lan-planak zehaztu behar dira. Atal sindikalaren lehen helburua enpresa sindikalizatzea da, etengabeko afiliazio-lana eginez. Gero, afiliatuei parte hartzeko aukera eman behar zaie biltzarretan, dituzten beharrezkoak eta itxaropenak zehazki ezagutzeko. Hortik aurrera, atal sindikalak erreibindikazio-edukiak moldatu eta hurrenkeran jarri ahal izango ditu, beti ere prekaritateari eta diskriminazioari lehentasuna emanez.

Funtsezkoa da atal sindikalek harreman estua izatea Sindikatuko federazioetako arduradunekin. Izan ere, atal sindikalak bizkortu behar dira, baina bideratu ere bai; haietako bakoitzaren borroka sindikatuaren dinamika orokorragoetan kokatzeko (sektore-mailan, konfederazio-mailan), saiakera arrakastatsuak elkarren artean banatzeko, eta haietatik ikasteko. Atal sindikalen eta federazio-arduradunen arteko lan estu hori gure sindikatuaren plus bat da, hari esker dinamika sindikal ugariagoak eta eraginkorragoak sortzen baitira. Hortaz, datozen lau urteetan daukagun indargune horri bultzada berria eman behar diogu.

Ontzat jo daitezkeen negoziazio kolektibo guztietan aipaturiko baldintzak edo ezaugarriak bete dira: atal sindikal antolatua, enpresa sindikalizatua, afiliatuen eta plantilla osoaren partehartzea, beharrezkoak eta edukien zehaztapena, eta harreman estua federazio-arduradunarekin. Eta horregatik, baldintza eta ezaugarri horiek jaso behar dira atal sindikalen eta federazio-arduradunen agendetan.

2. EBAZPENA (jarr.)

ATAL SINDIKALA, NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ANTOLATZEKO ERRONKA

Norberaren agendaren beharra

Garai honetan oso garrantzitsua da aipaturiko baldintzak eguneroko agendan azpimarratzea. Batetik, puntu horiek, neurri handi batean, gure esku daudelako. Eta bestetik, enpresetan —batez ere ertainetan eta handietan—, sindikatua barrura sartzen ez uzteko, edo geldiarazteko, gero eta baliabide gehiago jartzen ari direlako. Horra hor, lan-batzorde eta organoen ugaritasuna. Batzorde hutsal horien helburua militanteen denbora alferrik galtzea besterik ez da, sindikalizazio eta negoziazio-lanetan ari ez daitezen.

Behin agenda prestatu ondoren, gure helburuak landu ahal izango ditugu, eta negoziazioan gure ikuspuntutik eta estrategiaz baliatu ahal izango gara enpresaren aurrean. Horrek eman diezaguke behar dugun abantaila enpresa-zuzendaritzari aurrea hartzeko.

Ekintzazko batasuna

Bestalde, beste sindikatu batzuekin bat egitea giltzarria da indar-korrelazioan aurrera egiteko, eta ekintza sindikal ausartagoa egin ahal izateko. Sindikatuek batasun hori lortzeko, amankomunean jarri behar dituzte helburuak, esparruak eta eskuhartze-dinamikak. Baina, gainera, sindikatuen arteko lankidetzarako egitura egonkorra finkatzeko, ELAk beharrezkotzat jotzen du gehiengoak errespetatzea. Gutxiengotik itunak egitea bateraezina da edozein aliantza-politikarekin, ekimena patronalen esku uzten da-eta, berdin diola patronala publikoa zein pribatua izan. Azken finean, autobabes sindikaleko neurria da. Denok bilatu behar dugu, bai printzipio demokratikoengatik, bai bilatzen omen den eraginkortasunagatik.

Sindikalismo erreibindikatzaila

Aurrera eraman nahi dugun negoziazioa oso ausarta da, eta egoera zailean bizi gara. Gure ikuspuntutik ez dago ekintza sindikala egiterik, alde aurretik gatazka eta greba egiteko aukera alboratzen badugu. Horregatik, negoziazio kolektiboa prestatzeko, egundoko ahaleginak egin behar dira sindikatuaren egitura osoan, eta gainera, greba-kutxa sendotu behar da, orain arte egin dugun bezala, ezinbesteko euskarria baita.

Horiek guztiak kontuan izanik, honako hauek dira ELaren lehentasunak:

1. Gure sindikalismoa erreibindikatzaila da, negoziazioaren giltzarria indar-korrelazioa dela jabetu baikara.
2. Gure antolakundeek arretaz begiratuko diote atal sindikalak bizkortzeari. Ildo horretatik,, atal sindikalen ataza nagusia zeinek bere lan-agenda prestatzea izango da, enpresa-zuzendaritzek beren trikimailuez indargabeturik utz ez ditzaten.
3. Sindikalizazio-planak bultzatuko dira lantoki guztietan, sine qua non baldintza baita ekintza sindikala garatzeko.
4. Negoziazioaren edukien artetik lehentasun handiagoa emango zaie diskriminazioari, prekarietateari, enpleguari, lanaldiari eta eros-ahalmenari.
5. Negoziazio kolektiboa, azken batean, tresna gisa erabiliko dugu aberastasuna banatzeko, eta lan-baldintzak hobetzeko.

ERABATEKO LEHENTASUNA EKINTZA SINDIKALARI

Neoliberalismoa, langile-klasearen eskubideen aurka

Negoiazio kolektiboa, politika sozialekin batera, krisi larrian dago oldar neoliberalaren ondorioz. Eraso honek, besteak beste, lan-kontratuak bermerik gabe uzten du, babes soziala murrizten du eta zerbitzu publikoak pribatizatzen ditu. Gure herrian, gainera, eraso bereziki gordina da –eduki eta moldeetan– sindikalismo errebindikatzailaren aurka, eta herritar gehienaren interesen kontra jotzen du.

Lan-ibilbidea oso-osorik koloka jartzen dute: sarrera (aldi baterako kontratuak, lege-iruzurra, azpikontratak, subrogazioaren ukapena...), lanaldia bera (produktibitate exigentzia gero eta zorrotzagoak, segurtasuna eta osasuna babesteko prebentzio eta ikuskapen politikarik eza...), baita irteera ere (kaleratzea erraztuta). Lan-baldintzak gero eta okerragoak eta umiliagarriagoak dira, eta ordainsariaren erosteko ahalmena, gero eta apalagoa. Gaur Euskal Herrian jende asko, enplegua izanagatik, pobrezian dago.

Politika publikoetan zergetatik etorritako sarrerak gutxitzea erabaki dute (lan-errenta handien eta kapitalen gaineko zama arindu eta iruzur fiskalaren aurka ezer ez eginda). Horrekin batera, gastu soziala mailaz maila gutxitzen dute, zerbitzu publiko eta sozialak murriztuz (osasun-sistema, irakaskuntza, menpekotasuna...), zuzenean klase xeheen bizikaltatearen kalterako. Horrela baldintza objektiboak (zerbitzu eskasagoa) eta subjektiboak (iritzia) hedatzen dira, harik eta pribatizazioa onargarriago egin arte. Horixe da, hain zuzen lurzoru eta etxebizitza politikekin batera, gure arteko bazterte soziala hain kezkarria izatearen arrazoiak, Europako herririk aberatsenetakoa izan arren. Eskandalua are handiagoa da aurrekontu publikoak urtez urte superabitaz ixten direla aintzat hartuz gero.

Politika, elite ekonomikoen esanetara

Gure esperientziak, gure lan sindikalak -negoiazio kolektiboan eta beste eredu sozial baten alde daramagun borrokan-, behin betiko ondorio batera eramane gaitu: Euskal Herrian botere politikoak eta ekonomikoak beren interesak eta kudeaketa sektore pribatuaren onerako bideratzen dituzte, soldata-errenten eta langile-klasearen ongizatearen kaltetan. Herri-administrazioek, batetik, eta enpresari zein hauen elkarteek, bestetik, betidanik izan dituzte estrategiak partekatze eta erabakiak adosteko gune itxi formal eta informalak. Gaur identitate eta adostasun hori lotsarik gabe adierazten da, era argiagotan, jendaurrean eta gero eta nabarmenago.

Ez gara bakarrik jardunbide baztertzaila ari, "interes ekonomiko orokor" delakoaren aitzakiaz egiten diren horietaz (azpiegitura handiak, negozioentzako diru-laguntzak...). Ez, benetako kanpainak ere egiten dituzte, publizitate kutsua duten ikuskizun birtualek lagunduta; ikuskizunok ia egunero antolatzen dira, diru publikoz lagunduta.

Halaber, 'garai berri' honen ezaugarria ez da soilik baliabide publikoetatik jardun pribatuetara diru-kopuru hazkorrak bideratzea; gainera, kudeatzaile publiko eta pribatuak beren egitekoetan txandakatu egiten dira; honen emaitza aginte, botere eta kooptazio sare handi eta bakarra dugu.

Ondorioz, alor demokratikoa piskanaka esparru instituzionalera mugatzen dute, herritarren parte hartzeko beste bideak gero eta gehiago galarazten saiatzen direlarik (herri-ekimen legegilea, kontsultak...), jendartean edozein eztabaida mozte aldera. Horrekin batera, administrazioek eta enpresaburuek negoziazio kolektiboan eta parte hartzeko organo sozial eta laboraletan gehiengo sindikala errespetatzeari buruzko joko-arauak urratu egiten dituzte. Injustizia areago doa, zuzenean Gasteizko gobernuaren menpeko diren auzitegi administratiboak aktibatu baitituzte askatasun sindikalaren aurka.

3. EBAZPENA (jarr.)

ERABATEKO LEHENTASUNA EKINTZA SINDIKALARI

Elkarrizketa sozialaren sakoneko krisia

Elkarrizketa sozialak, Nafarroan kasu, gehiengo sindikala erabilita modu instituzionalizatu eta iraunkorrean proiektu daitekeenean, aldebiko edo hiruparteko esparru orotatik kanpo uzten ditu langileen herenetik gora ordezkatzeko dituztenak, eta inoiz gehiengorik ez badute minoria akordioak egiten dituzte.

EAEn, berriz, zuzenean ildo estrategiko jakin bat hautatu dute Eusko Jaurlaritzak, patronalak eta enpresaburuek; honen ondorioz, partaidetza instituzionalean zein negoziazio kolektiboan legitimatu egiten dituzte gutxiengo sindikalarekin iritsitako akordioak.

Jokabide antidemokratiko honi aurre egiteko ELAK sindikatu eta patronalentzako topagunea behar zuen Lan Harremanen Kontseilutik (LHK) alde egitea erabaki zuen, hura sortzerakoan protagonistetako bat izan zen arren. Irteteko erabakiaren zergatia, Bizkaiko hormigoi eta harrobien sektorean sinatu zen minoria-akordioa eta ondoren ugazabek eskubide sindikalen kontra hasitako erasoak. Dena dela, gutxienez 1999 urtetik aurrera agerian geratu zen LHK sortu zen helburura iristeko ezgauza zela, hots, negoziazio kolektiboaren garapenerako ez zela baliagarri.

Halaber, ELAK eta LABek Hobetuz langile aktiboen prestakuntzarako fundaziotik ateratzea erabaki zuten, funtsezko hiru arrazoi medio: Gobernuak fundazioaren joko-arauak aldebakarreko erabakiz aldatu izana; Estatuak fundazioaren proiektuaren aurkako eredu ezartzea, eta hori guztia gutxiengo sindikalaren babespean egin izana, beraz autogobernua hedatzeko edozein aukeraren etsai den arren, eta zehazki langileen prestakuntzarako bertoko ereduaren aurka egonda ere.

Azkenik, ELAK Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko (EGAB) lana ere bertan behera utzi du. Kontsulta organo honek ez dauka inolako eskumenik zerga-politikari edo aurrekontuei dagokienez; administrazioek bere iritzi eta proposamenak ez dituzte aintzat hartu, eta ugazabek areago hustu dute, gustoko ez diren gaiak eztabaidatzea galarazi egin baitute. LABek ere erakunde honetan ez du parte hartzen.

Administrazioek eta enpresaburuek elkarrizketa soziala aipatzen dute, baina uko egiten diote elkarrizketa horretan lan-baldintzak hobetu edota aberastasunaren banaketa desberdina eta injustua orekatzeko ezein aukera. Hartara, partaidetza instituzionalaren bitartez politika publiko eta laboralentzako legitimazio formala bilatzen dute. Era honetako elkarrizketa sozialak sindikalismoa indargetu nahi du bere lehentasunetik aldentu araziz, hots, langile-klasearen interesen aldeko ekintza kolektiboa antolatzeke lehentasunetik.

Elkarrizketa sozial hori eskuzabala da, beraz, betiere mugimendu sindikala politika neoliberalen aplikazioan laguntzaile izateko prest badago eta bake soziala bermatzen badu. Gai jakin batzutarako, enplegu-politikak, prestakuntza edota immigrazioa kasu, baliabide finantzarioak ziurtatuta daude, berdin da politika horiek estatu mailan edo Euskal Herrian erabakitzen diren, eta Gernikako Estatutuan edo Foruaren Hobekuntzan ezarritako eskumenen banaketa urratzen duten.

Kongresu honek konklusio gisa honakoa adierazten du:

1. Ekintza sindikala eta elkarrizketa soziala batera ezinezko aukerak dira eraso neoliberalaren baitan eta indar-erlazioa mugimendu sindikalarentzat hain txarra denean. Arazoak, esan dugun bezala, eduki eta joko-arauekin du zerikusia.
2. Auzi honi heltzea etorkizun sindikalerako erabakigarria da, eta horregatik ekintza kolektiboa mantendu eta indartzeko apustua egiten du, bere autonomia politiko eta finantzarioak ematen dion.
3. Ezinbestekoa da jarrera sindikal hori maila guztietan indartzea, konfederaziotik hasi eta atal sindikaletaraino, horietan guztietan islatu behar baita sinesgarri eta eragingarri garelara.
4. ELA bereziki zorrotza izango da bere buruarekiko ordezkartza mailak ardu handiagoa ematen dion esparruetan eta langile-klasearen onerako lan-dinamika alternatiboak gauza ditzakeen tokietan.

LANEAN ERE EUSKARAZ

Euskara lan munduan normalizatzearen alde aritzeko konpromisoa X. Kongresuan adierazi genuen, eta XI.ean berretsi. Abiapuntu bezala, sindikatu barrutik hasi ginen. Euskararen arautegia eta urteroko planak onartzea erabaki garrantzitsua izan zen, euskara antolakuntza ikuspegi batetik planifikatzea ekarri zuelako.

Urte hauetan ibilbide bat egin dugu, aurrerapausoak izan dira, baina asko daukagu hobetzeko. Hala ere, ebazpen honetan ELAren barne egoeratik haratago joan nahi dugu, eta lan arloan daukagun hizkuntza egoera aztertu.

Azkenaldian frantses eta espainiar estatuetan eztabaida linguistiko-politiko puri purian dago. Frantzia, beste behin, frantsesa ez den beste hizkuntzei ez zaie aitortu izaera ofizialik. Espainian, gaztelaniaren “babes eza” aitzakizat hartuz gainontzeko hizkuntzak auzitan jartzeko kanpaina bortitza hasi dute hedabideetan.

Bitartean, Euskal Herrian inkesta soziolinguistikoek kezkatu egiten gaituzte. Euskararen erabilerak behera egin du, gazteen artean batez ere. Azken urteetan izandako ezagutza tasaren igoerak eta hezkuntzan lortutako aurrerapenak ez dute eragin zuzenik izan erabileran. Gure ustez, horrek harreman zuzena du lan munduan eta arlo sozio-ekonomikoan euskarak duen egoera diglosikoarekin. Lan munduan gaur egun, geroz eta langile gehiago dira euskaldunak, baina lan harremanak euskalduntzeko hori ez da nahikoa. Normalizazioaz ari garenean, euskararen erabilera bermatzeko baldintza egokiak sortzeaz ari gara, eta euskara era honetara aurreikusten duten lan zentroak oso urriak dira.

ELAn argi daukagu lan munduaren euskalduntzerik gabe ez dagoela euskararen normalizaziorik, ez eta benetako ofizialtasunik. Normalizazioaren erronka nagusia eta ezinbestekoa lan harremanetan dago.

Nafarroan eta Iparraldean lan munduaz haratago egin beharko genuke azterketa. Lurralde hauetan euskara ez da ofiziala, ez dauka legearen babesik (Nafarroako zati batean izan ezik). Ofizialtasun eza arazo politiko larria da. Beraz, herrialde hauetan euskararen ofizialtasun osoa eskatzea izan behar da lehenengo aldarrikapen politikoa, euskarak esparru guztietan, lan munduan barne, garatzeko aukera izan dezan.

Euskal Autonomi Erkidegoan, aldiz, euskaraz lan egitea eskubidea dela gogoratu behar dugu. Lana eta jarduera sindikala euskaraz garatzea legeak babesten duen hizkuntza eskubidea da, botere publikoek babestu beharrekoa, hain zuzen. Errealitatea, zoritxarrez, oso bestelakoa da.

Egoera honen aurrean, euskara babesteko eta hedatzeko estrategia baten beharra azpimarratzen dugu, jendartean eta lan munduan dituen gabezia estrukturalak gainditze aldera. Helburua euskarari hizkuntza ofizial bezala dagokion tokia ematea litzateke, progresiboki eta bakoitzaren borondatean oinarrituta, baina hizkuntza eskubideen defentsa irmoa eginez. Hizkuntza politikaren emaitzen inguruan eztabaida zabaldu behar dugu eta euskararen garapen osoa nahi dugunon artean adostasun politiko-sozialak bilatu. Azkenaldian, euskararen inguruan “adostasun zabalak” alde ari dira eragile batzuk. Mantendu beharreko ondare kultural gisa ikusten dute euskara, eta ondare horren aldeko aldarrikapen hutsalak egiten dituzte, baina euskaldunok euskaraz bizitzeko nolabaiteko neurri zehatzak proposatzen direnean, erdaldunak diskriminatzen direla diote. Diskurtso horren atzean egungo egoera mantentzearen aldeko apostua besterik ez dago, eta hori agerian utzi behar da.

Adostasunaren diskurtsoa politikoki zuzena da baina praktikan euskaldunon hizkuntza eskubideak mugatzen ditu. Hezkuntza arloan zabalik dagoen eredu linguistikoaren eztabaida horren adibide da. Hain gai garrantzitsuaren aurrean, Jaurlearitzak ez dauka borondate politiko nahikorik proposamen landu bat egin eta aurrera ateratzeko.

Esparru sozio-ekonomikoan ere, lehentasunak finkatu eta eman beharreko urratsak markatu behar ditugu. Horretarako beharrezkoa da Eusko Jaurlearitzaren ekimen politiko ausartagoa.

4. EBAZPENA (jarr.)

LANEAN ERE EUSKARAZ

Bultzada politiko hau lan munduko protagonista guztion parte hartzearekin osatu beharko litzateke, estrategia eta plan guztiak norabide bakarrean zuzenduz, eta beti ere dinamika osagarriak eta ez kontrajarriak edo paraleloak sortuz.

Euskaldunon hizkuntza eskubideen alde administrazioa bera aintzindaria izan beharko litzateke eskaintzen dituen zerbitzu publikoetan. Tamalez, azken urteetan emandako urratsak ez dira nahikoak bide honetan. Benetako ofizialtasunera hurbiltzeko normalizazio plan eraginkorragoak eskatzen ditugu sektore publikoan.

Arlo pribatuari dagokionez, enpresariak, beti ere kalkulu ekonomikoari lehentasuna emanaz, ez dute ikusten euskara lehiari aritzeko abantaila bezala, salbuespenak salbuespen. Produktua edo zerbitzua euskaraz ematea ez dute sentitzen balio erantsi edo kalitatea areagotzen duen plus gisa, eta gehienetan, ez dute normalizazio planik bultzatzeko interesik. Enpresaren jardura euskaraz garatzea inbertsio errentagarri bihurtzen duen behar soziala sortzen ez den bitartean, zaila izango da gai honetan aurrera egitea.

Zeregin honetan ere Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuari paper aktiboagoa eskatzen diogu. Hasteko, Jaurlaritza beraren jarduran euskarari zehar lerroaren izaera aitortzea ezinbestekoa da, hau da, euskara gai tranbertsala izatea. Ondorioz, normalizazio planak eta neurriak enpresetan bultzatzerakoan, Kultura sailaz gain, Lan eta Industri sailak ere inplikatu beharko lirateke.

Gainera, erabiltzaile eta kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak babesteko neurriak hartzea beharrezkoa da. Onartu berri den araudian (123/2008 Dekretua, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa) gai honetan jauzi bat emateko aukera galdu da. Izan ere, dekretua urrats bat den arren, oso aplikazio mugatua du eta gainera, jasotzen diren eginbeharrak betearazteko ez da aurreikusten neurri eraginkorrik.

Administrazioa eta enpresariak aipatu ditugu, baina sindikatuok ere badugu gai honetan ardurarik. Eta, ELAk, sindikatu nagusi bezala, erantzunkizun garrantzitsua du lan munduaren euskalduntzean. Gure lanaren balantzea eginez, euskararen normalizazioan egin duguna baino gehiago egin dezakegula aitortu beharrean gaude.

Ebazpen honen bidez ELAn euskararekiko dugun atxikimendua gogoratu nahi dugu, eta lan munduan euskara txertatzeko konpromisoa indartu. Badugu zer eginik hurrengo lau urteetan:

- Gure afiliatu eta ordezkariegandik hasita, euskararen hedapenaren aldeko sentsibilizazio eta motibazio lana.
- Enpresetan normalizazio planen eta neurrien alde aritu.
- Negoziazio kolektiboan euskararen erabilpenaren aldeko klausulak bultzatu.
- ELA barruko normalizazio plana garatzen joan, euskara ELAn zerbitzu eta lan hizkuntza osoa izan dadin.
- Lan munduan eta jendartean euskararen alde burutzen diren ekimenetan parte hartu, militantzia sindikala eta euskararen aldekoa uztartuz.
- Nafarroan eta Iparraldean euskararen ofizialtasun osoa exijitu, normalizazioan aurrera egiteko funtsezko erabaki politiko bezala.

Azkenean, XII. Kongresu honetan egin nahi dugun ekarpena eta aldarrikapena ondorengoa da: euskaraz lan egin eta bizi nahi dugu, euskaraz lan egin eta bizitzeko eskubidea dugu eta eskubide hauek gauzatzeko benetako konpromiso politikoa eskatzen dugu. ELA ere, dagokion papera onartuz, lan mundua euskalduntzearen alde aritzeko prest dago! Lanean ere euskaraz, ELAn ere euskaraz!

ABERASTASUNAREN BANAKETA: LAN-ERRENTA ALTUAGOAK, GIZARTE-GASTU HANDIAGOAK ETA JUSTIZIA FISKAL ZORROTZAGOAK

Finantza-krisia benetako ekonomiara heldu da, ekonomiaren hazkunde txikiagoaren bitartez. Ekoizpena erortzen ari da, kreditua lortzeko oztopoek eta kontsumoaren beherakadak eraginda. Ez dago egoera honen hedadura eta iraupena aurreikusterik, baina jakitera ematen ari diren datuek atzerapen-arriskua agertzen dute.

Politikak interes pribatuen alde egin du

Testuinguru honetan, ELAren XII. Kongresu Konfederalak azken krisialdi ekonomikoaren ondorioak ekarri nahi ditu gogora. Ordukoan lan-errentek galera itzela izan zuten aberastasunean zegoen partean, eta horren eragileak enpleguaren eta soldaten bilakaera negatiboa, gastu publikoaren euspena, eta errenta handiek zein kapitalak jasan beharreko presio fiskalaren gutxipena izan ziren.

Haren ondorengo urteetan, ekonomiak hazkunde bizi-bizia izan arren, aberastasunaren banaketak okerragotze-bidean jarraitu du. Enpresarien eta kapitalaren errentak inoizko handienak dira gaur egun, lan-errentak minimo historikoetan daudelarik.

Zalantza barik, egungo egoeraren erantzuleak gobernuak dira, euren eginbehar publikoari eutsi beharrean, ekonomia merkatuaren ez beste inoren esku utzi dutelako, kapital-mugimenduak liberalizatu eta desarautu dituzte, enplegua ezegonkortu, lan-harremanak banakotu eta sektore publikoaren pisua zorrozki urritu (errenta handiek eta kapitalak ordaindu beharreko zergak murriztuz, pribatizazio eta azpikontratazioak bultzatuz, eta gizarte-estaldurak gutxituz).

ELAk askotan salatu ditu ondorio antisozial tamalgarriak dakartzaten politika neoliberal hauek. Baina, gainera, une honetan finantza-sektore pribatuaren erreskaterako, hau da, dirugoseak bultzatuta espekulazio-krisia eragin duten berberen ondasunak babesteko, erabiltzen ari den dirutza eskerga ikusita, argi dago merkatu librea amarru hutsa dela. Merkatu librea behin eta berriz aldarrikatu dutenek duda egin gabe jo dute sektore publikora, eurak "salbatu" ditzan exijitzera. Galerak sozializatu egin behar dira, mozkinak pribatizatutakoan baina.

Finantza sektoreari emaniko egundoko dirutzak ez du likidezia hobetu. Izan ere, banka, hein handi batean, diru sarrera horiek enpresa eta pertsonen kredituak eskaintzea ez bestelako helburuetara ari baita bideratzen. Finantza erakundeek eskainiriko interesen eta interes tipo ofizialen arteko tartea handitu dute.

Hala eta guztiz ere, horri ez deritzote nahikoa. Enpresariak, gobernatzen dutenek eta berorien inguruko presio-taldeen are urrunago iritsi nahi dute, oraingo egoeraz baliatuta. Berrito ere, soldata-igoera murriztagoak, kapitalak zerga gutxiago ordaintzea eta gizarte-gastua urritzea dira beraien errezetak. Eta hau gutxi balitz lan-arloko eta gizarte-estalduren erreforma berriak. Azken urteetan hautatu izan duten eta ondorio negargarriak ekarri dituen jardunbide berbera, hain zuzen ere. Bide horretan jarraitzeak egoera okerragotu baino ez luke egingo.

Egoera honen aurrean, aberastasunaren banaketa hobea lehenesten duten politikak galdatzen ditu ELAk bi norabide nagusitan.

Enpresetan aberastasuna banatzeko politikak abiaraztearen alde dago ELA

Alde batetik, enpresaz enpresako eta sektorez sektoreko azterketa egin behar dugu. Enpresek ahalik eta mozkin gehien eskuratu nahi izango dituzte, enpleguaren eta soldaten kontura, eta askok, egoeraz baliatuz, inolaz ere justifika ezin daitezken planteamenduak egingo dituzte. Soldatak KPIaren gainetik hazi daitezkeen borrokatu behar dugu, bai eta enpresariak planteatu litzaketen plantilla-murrizketei (espedientei, kontratuak ez berritzei,...) aurka egiteko ere.

Lan-errentak handitzea ekarpen garrantzitsua da kontsumoa sustatzeari begira, batez ere 1.000 eurotik beherako soldata esleituta daukaten lanpostuen hedadura zabala kontuan harturik.

Sektore publikoa aktiboagoa izan dadin: gizarte- eta zerga-politikak aldatu

Bestalde, orain arte garatutako aurrekontu-politikak errotik aldatzeko neurriak galdatzen dizkie ELAk instituzioei. Sektore pribatua geldirik dagoen une honetan, are eginkizun garrantzitsuagoa dagokio sektore publikoari.

5. EBAZPENA (jarr.)

ABERASTASUNAREN BANAKETA: LAN-ERRENTA ALTUAGOAK...

Gizarte-gastua nabarmenki areagotzea eta gizarte-eskubide gehiago aitortu eta estaldura eskaintzea ezinbestekoa da. Behar-beharrezkoa da diru-prestazioak (langabeziako prestazioak, oinarrizko errenta, pentsioak...) handitzea, hainbat arlotako (hezkuntza, osasun, gizarte-zerbitzu, etxebizitza, ingurumen, garraio publiko eta abarretako) zerbitzu publikoetarako irispidea izateko eskubidea aintzat hartzeaz eta aipatutako arlo horietako inbertsio publikoak areagotzeaz batera.

Politika horrek, jendearen bizi-baldintzak hobetu ez ezik, bestelako abantaila esanguratsu batzuek eskaintzen dituen eredu ekonomiko baten alde aurrera pausoak ematea dakar. Esaterako, sektore publikora bideraturiko baliabide ekonomikoek proportzionalki enplegu gehiago sortzen dute. Bestalde, kontutan izan behar da egungo sistema jasangaitza dela denboran. Dirua baliabide natural mugatuak xahutu eta ingurugiroa kaltetzen duten sektoreei zuzendu beharrean, aurrez izendatutako bestelako jarduera jasangarriagoak sustatu behar dira.

Helburuok lortuko badira, zerga-politika funtsezko ardatzetakoa da. Zergak gero eta gizarte-eredu bidezko eta solidarioagoa lortzeko tresna izan beharko lukete. Aitzitik, gaurko zerga-politikak, besteak beste, argi erakusten du Hego Euskal Herriko instituzioen hautua enpresarien eta kapitalaren errenten aldekoa izan dela, biztanle gehientsuen kalterako.

Orain arte egindako zerga-erreformen joera soldatukoak ez diren errentak zerga-erantzukizunetatik salbuetsiz joatekoa izan dela ikusirik, erabateko aldaketa exijitzen diegu arduradun publikoei. Diru gehiago bildu behar dute zergen bidez, eta errenta handienak dituzten sektoreetatik eta soldatukoak ez diren errentetatik lortu behar dute hori. Iruzur fiskala gure zerga-sistemaren gaitz larria dela jakinik, beraren aurkako borrokak diru-baliabideen gehikuntza nabaria eragingo luke.

Halaber, PFEZaren eta Sozietateen gaineko Zergaren erreformak itzularazi egin behar dira. PFEZari dagokionez, mingarri suertatzen da kapitalaren errentek zerga-tasa finko bakarra (%18koa) izatea, mailakako zerga-tasak ezeztatuta. Sozietateen gaineko Zergaren kasuan ere, atzerantz ibili behar da orain arteko bidea, enpresen mozkinak zentzu handiagoz zergapetu daitezen.

Hego Euskal Herriko instituzioek, ordea, azken urteetako jokaildoari eusten diote oraindik ere. Horrela, baliabide publikoak ugaltu behar diren une honetan, Ondarearen gaineko Zerga deuseztatzea planteatzen dute, erabaki horrek urteko zerga-bilketan 250 milioi euro (etxebizitzako gastu publikora bideratzen dena baino gehiago) galaraziko lituzkeen arren. Noranzko berean doaz bai Nafarroako Gobernuak bai Eusko Jaurlaritzak 2009rako aurkeztutako aurrekontu-proiektuak ere, batak gastu publikoa %3,7 murriztea aurreikusten baitu, besteak, berriz, %5,5eko gehikuntza eskasa iragartzen duelarik. Gobernuok ez dute ez gizarte-gastua ez gizarte-eskubideak areagotzeko urratsik ematen.

Hego Euskal Herrian, azken hamarkadan, superabit sistematikoa izan duten aurrekontu-politika horien zilegitasuna premiaz berrikusi behar da. Gizarte-gastuaren eta diru-sarreraren gehikuntzek defizit publiko eta zor publikoaren jaulkipenarekin batera etorri behar dute, bereziki ekonomia suspertu beharrean gauden honetan. Azken urteetan paradoxa bat eman da: familien zorpetzea asko gehitu da zor publikoa desagertzearaino murriztu den bitartean.

Ildo berean, eredu-aldaketak Europan ere izan behar isla. Europako Banku Zentralak oso altu eduki ditu interes-tasak, benetako ekonomiaren premiei erreparatu barik. Europar Batasuna artezten duten Tratatuak zilegitasuna ematen diote politika horri, bai eta kapitalen liberalizazioari eta enpleguan, behin-behinekotasunean, gizarte-gastuan eta beste gai garrantzitsu batzuetan derrigorrez bete beharreko helbururik ez egoteari ere. Hori guztia errotik aldarazi beharra dago.

Kontzientziatu eta mobilizatu beharra

ELAren XII. Kongresuak honako konpromiso hau hartzen du bere gain, datozen hilabetei begira: sindikatuak aberastasunaren banaketa ardaztat izango duen ekintza-kanpaina bat garatzekoa, alegia, Ebazpen honetan jasotako neurriei, bai enpresetako negoziazio kolektiboko dinamiketan, bai zerga-eta gastu-politika publikoetan, jaramon egin dakien aldarrikatzearren.

Ekonomia- eta gizarte-ereduaren beharrezko aldaketa, ostera, aberastasunaren banaketa eta gizarte justu eta solidarioagoen aldeko kontzientziaz, antolakuntzaz eta borrokaz baizik ez dugu lortuko.

GIZA ESKUBIDEEN URRATZERIK ETA BAZTERKETA POLITIKORIK EZ

Euskal Herriko biztanle askok mugatuta dauzkate oinarrizko eskubideak eta askatasun politikoak, etengabeko ilegalizazio erregimenaren eta estatuak erabakitzen dituen politika errepresiboen ondorioz. Politika hauek estatu autoritario baten joeraren arabekoak dira –printzipio demokratikoak ez dira benetan aintzat hartu–, eta horien adierazpenik gogorrenetakoa itun antiterrorista da, 2000. urtean PSOEk eta PPK sinatu eta gero kideko eragileek berretsi zutena. Halaber, praktika horiek segurtasun politikaren eta gerra prebentiboaren aterpean garatzen dira; hauek azken urteotan antiterrorismoaren aitzakiaz ezarri dira mundu mailan.

Etengabeko ilegalizazioa

Ebazpen judizialaren itxurapean hartutako erabaki politikoa da zenbait alderdi politikoren ilegalizazioa, Euskal Herriko eremu sozial eta politiko garrantzitsu bat ordezkartzarrik gabe uzteko hartua. Partaidetza politikorako eskubidearen aurkako eraso onartezinak dira ilegalizazioak, eta gure inguruko demokrazietan ohiko diren printzipio politikoak bereganatu ez dituen estatu honetan ari dira gauzatzen.

Estrategia hori bultzatzen duten estatuko botere eta erakundeek ongi asko dakite demokraziaren aurkakoa dela inongo talderi politikan jarduteko eskubidea kentzea –eta 'kutsatuzat' jotzea inor, gero hautetsi izan ez dadin–; gainera, jokabide horrek ez dio batere laguntzen gure herri honetako gatazka konpontzen. Izan ere, horixe du helburu –seguruenik– erabaki horrek: antiterrorismoaren aitzakiapean, konponbide demokratikoa ukatzea Euskal Herriari. Bat letorke jokabide hori aspaldi honetako beste zenbait erabakirekin (18/98 sumarioa eta beste hainbat, egunkariak ixtea, giza eskubideen urratzeak...).

Ilegalizazioek areagotu eta errepikatu egiten dute Ajuria Eneako Itunaren garaiko eskklusio egoera hura. Horregatik, Biltzar Konfederal honek kezagarria deritzo gure gizarteak normaltzat jotzea bazterketa-prozesu hori. Estatuaren gehiegikeriez jabetu arren, askok uste dute legez kanpo utzitako sektore politikoaren ekintza eta erabakien ondorio direla neurri horiek. Aurre egin behar diogu uste hori, eta jokabide horiek salatu, demokrazia batean onartzerik ez dagoen mendekusmoa baitago horren azpian, zalantzarik gabe.

Tratu txarrak eta torturak

Mendeku-gose berbera erakusten du estatu espainiarrek sortu eta babesten dituen zigorgabetasun-eremu horietako giza eskubideen urratze sistematikoak ere.

Lehenik eta behin, Lege Antiterroristak ezarritako inkomunikazioa –berez ere umiliagarria– zigorgabetasun-burbuila bat da, non tortura eta tratu txarrak sarritan izaten diren. Halaxe salatu du, duela gutxi, NBEko Giza Eskubideen Batzordeak. Gauza bera gertatzen da estatu espainiarreko espetxeetako isolamendu-ziegetan.

Oso tortura-kasu gutxi ikertzen dira, are gutxiago iristen dira auzitegietara, eta kondenarik apenas izaten da. Kondenatzen dituzten gehienak, bestalde, indultatu egiten dituzte gerora –batzuei omenaldiak ere egiten zaizkie!–, edo ez dute zigorra betetzen.

Tratu txarrak eta torturak izateko aukera ematen dute lege antiterroristak eta poliziaren zein epaileen jokabideak, opakoak baitira erabat, eta, gainera, galarazi egiten dute kasuen ikerketa eta errudunak auzipetu eta kondenatzea.

Erabat arbuiatzen ditu ELAk jokabide horiek, aurkari politikoa fisikoki eta moralki suntsitzeko erabiltzen direnak. Halaber, gaitzetsi egiten du estatuko botereek eta espetxe- zein polizia-erakundeek torturatzaileri ematen dioten sari hirukoitza –botere exekutiboaren babesa, legegilearen onespina eta judizialaren bedeinkazioa–.

Presoen egoera

Euskal preso politikoen egoera ere giza duintasunaren aurkakoa da erabat.

Frantzia eta Espainiako kartzeletan sakabanaturik daude kolektibo horretako partaide ia guztiak. Beraz, presoen senideei ere eragiten die sakabanaketak (urruti joan beharra, bisita-erregimen bidegabea, sarritan jasotzen duten tratu umiliagarria...). Ama diren preso guztiak ere sakabanatuta dauzkate. Bidegabea eta legearen aurkakoa da sakabanaketa, Espainiako Konstituzioa, espetxe-araudia eta Europako arau penalak urratzen baititu.

6. EBAZPENA (jarr.)

GIZA ESKUBIDEEN URRATZERIK ETA BAZTERKETA POLITIKORIK EZ

Presoen beste eskubide asko ere urratzen dira: isolamenduaren eta lehen graduaren erabilera gehiegizkoak izan ohi dira, komunikazioak murizten zaizkie, ikasteko oztopoak jartzen zaizkie, ez zaie uzten euskara erabiltzen, jende gehiegi pilatzen da espetxean...

Bereziki larria da, bestalde, gaixorik dauden presoek jasaten duten tratua. Legeak agintzen duenez, askatu egin behar dira gaitz larriak edota terminalak dituzten presoak, baina ez da betetzen agindu hori. Gainera, oso eskasa da, oro har, espetxeetako osasun-zerbitzua.

Azkeneko urteotan, berriz, kondenak luzatu egin dituzte, 'Parot doktrina' deritzona aplikatuz eta espetxealdia laburtzeko aukerak kenduz. Lehendik aplikatutako zigor-luditzeak ere berrikusi izan dituzte, eta prozedura berriak hasi, presoak ez kaleratzeko helburuarekin.

Azkenik, Kode Penalean iragarri diren erreformekin zigorra bete duten pertsonak etengabe zaintzeko erregimena ezarri nahi dute. Honelako zerbait bizi arteko zigorra eta askatasunik gabeko egoera litzateke, zuzenbidearekin bateratu ezinezkoa.

Presoen bizimodua are gogorragoa bihurtzeko eta kartzelaldia ahalik eta gehiena luzatzeko hartzen dira neurri horiek guztiak. Ondorioz, presoek ez dute jakiten noiz askatuko dituzten, luzatu egiten zaizkie kondenak, eta egin dutenagatik ez, baizik eta direnagatik ukatzen zaie libre egoteko eskubidea.

Indar-erlazioa hobetu

ELAk badaki egungo testuinguru honetan alferrikakoa dela espainiar gobernuari eskariak eta demandak bidaltzen aritzea, bidaltzen segitu beharra dagoen arren. Ezin gauza handirik espero estatu errepresibo eta autoritario honetatik. Horregatik, demokraziaren eta giza eskubideekiko errespetuaren alde jarduteko, indar-erlazioa hobetzen laguntzen diguten estrategiak eta borroka-bideak erabili behar ditugu.

Gure ustez, lehentasuna da gehiegikeria horiekiko sentsibilitaterik eza gainditzea. Beraz, gatazkak demokratikoki gainditzeko printzipio eta prozesuekiko konpromisoa berretsi egin behar dute erakundeek eta gizarte antolatuek, ELA ere barne dela. Oinarrizko eskubideen babesak aldarrikapen unibertsal eta erabatekoa izan behar du. Politikan jarduteko eskubidea eta aniztasun politikoaren printzipioa, berriz, ez dira egoeraren edo eragileen arabera berrikusi behar.

Gure iritziz, lehentasun sozial eta instituzional bilaka litezke torturen salaketak, atxilotuen inkomunikazio-erregimenaren aurkako borroka edo presoen egoera bidegabea gaitzesteko premia iraganeko estrategiak erabiltzeari utziz gero. Giza eskubideak urratzen dituzten jokabideez ari gara, estatu espainiarraren politika errepresibo, antidemokratiko eta aniztasun politikoaren aurkakoak aitzakiatzat hartzen dituen horiei buruz alegia. Segituan eta baldintzarik gabe utzi behar dira bertan behera hilketak, atentatuak (ia-ia izugarriko sarraskiak eragin dituzte batzuek), estortsioa eta mehatxuak, gero eta jende gehiagori eragiten diona bestalde.

Badakigu jokabide horiek alde batera uzteak ez duela aldaraziko estatuak euskal auziaz duen irizpidea, baina, era berean, uste dugu badagoela aukera iritzi publikoan beste giro bat sortzeko eta beste zenbait ekintza politiko bultzatzeko, bai gure herrian bai nazioartean, baldin eta hilketa eta mehatxu gehiagorik izaten ez bada. Indar-erlazio hobea emango liguke horrek bestelako testuinguru baten alde garenoi.

Biltzar honen iritziz, bestalde, mugatuak dira bide instituzional hutsak funtsezko aldaketa politikoak lortzeko (ikus besterik ez dago zer gertatzen den euskal erakundeetan). Hala eta guztiz ere, uste dugu lehentasuna izan behar duela indar politiko guztientzat, ENAM ere barne dela, legez kanpo dagoen sektore politikoari ordezkartza izateko eskubidea itzultzeak.

Biltzar Konfederal honek jakinarazten du aurrerantzean ere kritikatu egingo dituela estatu espainiarraren politika antierrepresiboak eta zuzenbidearen aurkakoak, eta mobilizatzen jarraituko duela giza eskubide guztien alde, indibidualak zein kolektiboak, zibilak zein politikoak. ELAk tinko bultzatzen duen burujabetzaren aldeko prozesu zibil eta demokratikoak eta indar-metaketa zabalak halaxe agintzen digute, izan ere.